

DIAGNOSTIKO TRESNAREN ARDURADUNARENTZAT GIDALERROAK

Datozen lerroetan jaso nahi da Udal bakoitzean adierazle panelaren arduraduna izango denak/direnek adierazle panela behar bezala betetzeko kontuan hartu beharreko hainbat ohar. Beraz, dokumentuak 3 atal nagusi ditu, zehazki honakoak:

- Diagnostiko tresnaren arduraduna(k): rola eta egitekoak
- Informazioaren bilketa egiteko urratsak
- Informazioaren kudeaketa egiteko oharrak

ADIERAZLE PANELAREN ARDURADUNA(K)

Udal bakoitzari bere adierazle panela helaraziko zaio. Behin tresna jasota, Udal bakoitzean arduradun bat ezartzea komeni da. Izendapen horretarako egon daitezken kasuistiken aurrean:

- Euskara teknikaria dagoen udalerrietan hau izango da arduraduna
- Euskara teknikari bat baino gehiago dagoen udalerrietan (herri handietan) bat izendatuko da arduradun
- Euskara teknikaririk ez dagoen udalerrietan udalak erabaki beharko du nori egokituko zaion horren ardua

Behin arduraduna izendatuta, kasu gehienetan (oso udalerrri txikiak ez direnen kasuetan) beharrezkoa izango da arduradunak koordinazio talde bat osatzea, batez ere informazioaren jasoketa antolatu eta bideratzeko. Interesgarria izan daiteke lantalde horretan hauek parte hartzea: kultur teknikariak, parte-hartze teknikariak, gazteria teknikariak, kirol teknikariak... Antolaketa hori, nola ez, udal bakoitzaren antolaketa eta langileen araberakoa izango da. Parte-hartzaileak edozein direla ere, antolaketa horren bokazioa da probestea eta baliatzea Udalak aisialdia eskaintzen duten entitateekiko harremanetarako jada martxan dituen ohiko kanalak diagnostiko tresna elikatzeke behar dugun informazioa jasotzeko.

INFORMAZIOAREN BILKETA EGITEKO URRATSAK

Excellak/taulak beteta jaso arte Udaletik jarraitu beharreko urratsak:

1. INTERESATZEN ZAIZKIGUN ENTITATEEN ZERRENDA EGIN
2. KOMUNIKAZIO KANALAK ERABAKI

Entitate horietara iristeko kanalik aproposena zein den erabaki: telefonoz, emailaz, diru-laguntzetara urtero aurkezteko unea, udaleko teknikariek izan ditzaketen harreman puntualak... Hau da, Udal bakoitzak entitate hauekin harremana izateko arrazoiak hainbat izan daitezke. Besteak beste: udaleko zerbitzu baten baitakoak dira, zerbitzu horiekin dute zuzenean hitzarmena, diru-laguntzak eskatzen dituzte, itzulpenak egiten dizkie Udalak, azpiegiturak udalarenak dira...

3. HARREMANETAN JARRI

E-mailez, telefonoz edo aurrez aurre harremanetan jarri aisialdiko entitate guztiekin.

4. INFORMAZIOA BETETZEKO GIDALERROEN FITXA ETA EUSKARRIA HELARAZI


Paperean edo e-mailez (hobetsi azken hori) helarazi datuz hornitu beharreko kalkulu orria eta dokumentuak.

5. EMAILEARENGANDIK DATUZ BETETAKO EUSKARRIA JASO ETA DATUAK DIAGNOSTIKO TRESNARA IRAULI

Emailearengandik jasotako datuak (hobe formatu digitaleko kalkulu orrian bada) jaso eta, diagnostiko tresnako “Taldeen datuak sartzeko orriaren” egitura berekoa denez, erraza da emaileak bidalitako datuak kopia eta diagnostiko tresnan itsastea (taldeen datuak “kopiatu” eta gero “itsatsi”).

6. EMAITZAK IRAKURTzea

Diagnostiko tresnako “Taldeen datuak sartzeko orria” datuak sartu ondoren, datuen irakurketa orokorra egiteko abagunea eskaintzen duten taula dinamikoek hainbat irakurketa kuantitatibo eta kualitatibo egiteko aukera emango digute.



[x herriko] 16 urtetik beherako gazteentzako eskolaz kanpoko jardueretako euskararen egoeraren diagnostiko tresna

HERRI/AUZO BAKOITZEKO ETA ADIN TARTE BAKOITZEKO JARDUERA TALDEEN DATUAK ETA HEZITZAILEEN EZAGUTZA ETA ERABILERA DATU OROKORRAK, GENERO IKUSPEGIAREKIN DESBERDINTZEKO AUKERAREKIN

*HEZITZAILE(AR)EN ARTEAN EMAKUMEZKOAK (%) (Guztiak) ▾
 *Taldekideen artean EMAKUMEZKOEN KOPURUA (%) (Guztiak) ▾

Herri/auzoa, Adin-tarteak, Entitate-emaileak	Talde kop.	Taldekide kop.	Jarduera euskaraz emateko gai diren hezitzaileak (%)	HEZITZAILEEK HAUR/GAZTEEI EUSKARAZ ZENBAT EGITEN DIETE (%)	IKASLE-ORDUAK	EUSKARAZKO IKASLE-ORDUAK
Arralde behea	20	245	%83	%63	19565	9770
0-5 urte (HH)	2	12	%100	%100	480	480
06-11 urte (LH)	7	94	%86	%68	6005	4655
12-16 urte (DBH)	11	139	%77	%52	13080	4635
Arralde goia	27	507	%69	%69	37721	30334
0-5 urte (HH)	18	332	%78	%81	26200	20790
06-11 urte (LH)	6	157	%78	%71	10536	9544
12-16 urte (DBH)	3	18	%0	%0	985	0
orokorra	47	752	%75	%66	57286	40104

1. Jarduera-emaileak 2. Taldeen datuak sartzeko orria **3. Emaitza orokorrak&adinka** 4. Emaitzak emaileka 5. Aukerako emaitza gehiago 6. Aukerako emaitza gehi

Emaizta-sailkapen desberdineko hainbat emaitza-orri daude, taula dinamikoz hornituta, eta “menu hedagarriak” eta iragazkiak erabiliz emaitzok hedatu edo fokalizatu egin daitezke.


HERRI/AUZO BAKOITZEKO ETA ADIN TARTE BAKOITZEKO JARDUERA TALDEEN DATUAK ETA HEZITZAILEEN EZAGUTZ GENDERO IKUSPEGIAREKIN DESBERDINTZEKO AUKERAREKIN			
*HEZITZAILE(AR)EN ARTEAN EMAKUMEZKOAK (%)	1		
*Taldekideen artean EMAKUMEZKOEN KOPURUA (%)	(Guztiak)		
Herri/auzoa, Adin-tarteak, Entitate-emaileak	Talde kop.	Taldekide kop.	Jarduera euskaraz emateko gai diren hezitzaileak (%)
Arralde behea	7	64	%86
0-5 urte (HH)	2	12	%100
06-11 urte (LH)	2	19	%50
12-16 urte (DBH)	3	33	%100
Irubat futbol kluba	1	16	%100
Motz Pilota Elkartea	1	6	%100
Udal Kiroldegia	1	11	%100
Arralde goia	12	205	%100
0-5 urte (HH)	11	195	%100
06-11 urte (LH)	1	10	%100
orokorra	19	269	%95

7. DATUETATIK EMAITZETARA ETA EMAITZETATIK ESKU-HARTZERA

Diagnostiko tresna honek ematen dituen emaitzetatik hainbat esku-hartze diseinatu daitezke. Horiek herri bakoitzean desberdinak izan daitezke, baina besteak beste, honakoak izan daitezke tresnen emaitzetatik diseinatu daitezken ekintza posibleak:

- Kolektiboki hizkuntza irizpide bateratuak ezartzea.
- Erosotasunaren inguruko hausnarketa kolektiboak bideratu.
- Hezitzaile eta entrenatzaileen formakuntzetan lanketa berdinak sartu lurralde guztietan.
- Protokolo bateratuak.
- Udal mailan edo eskualde mailan jarduerak euskaraz emateko gai diren hezitzaileen lan poltsak osatu.
- Udalak euskarazko eskaintza egiten dutenen katalogoa osatzea urtean behin. Gurasoek argi izan dezaten non jaso dezaketen haur eta gazteen aisialdia euskaraz.
- Herriko aisialdiaren mapatzea egitea.
- Sareak sortzea herrien artean, udalak sustatzea sare horiek.
- Entitate emaileetako arduradunekin lanketa bateratuak egiten hastea.
- Diru-laguntza lerroetan hizkuntzaren aldagai sartzea.

Diagnostiko tresnan (ausazko datuetatik eratorritako) emaitza batzuetatik (eta beren gurutzatetik) atera daitezkeen lanketen lagin bat dago txertatuta, adibide gisa (ikus irudia).



INFORMAZIOAREN KUDEAKETA EGITEKO GOMENDIOAK

DATUEN PRIBATUTASUNA

Datuen pribatutasunaren inguruan, udal bakoitzak bere egoera erakundeko aholkulari juridikoarekin aztertea gomendatzen dugu (baliteke hainbatek beraien hitzarmenetan sinatuta izatea Udalarekin, edo bestelako harreman bategatik legea sinatuta izatea...). Horrek soilik eragingo luke hezitzaileen identifikazio datuan.

DATUAK ITZULTZEA ENTITATEEI

Garrantzitsua da entitate emailei beraien datuen titularrak helaraztea, emaitza orokorrekin batera. Informazio hori jasotze hutsak eragin dezake emailearengan "kontzientzia soziolinguistikoan" aurrerapauso bat ematea eta akuilu izan daiteke euskararen sustapenerako neurriak har ditzan.

Datuen itzulketarako herri mailako aurkezpena ere antolatu daiteke, edo lan saioa elkarrekin emaitzak irakurri eta balizko esku-hartzeen bideragarritasuna testatzeko eta lehentasunak finkatzeko.